

2005eko uztailaren 28a • XXV. urtea



Agenda 21 Baztan eta Bortzirietan

03

Agenda 21 garapenerako egitasmoa gauzatu nahi da Baztan eta Bortzirietan. Lehenbiziko ekimena, 600 lagunei egiten ari zaien inkesta izanen da.



Baztandarren Biltzarra jendetsua

19

Uztailaren 17an jendeketa izugarria bildu zen Elizondon. Baztango herri guzietan beraien organo plazaratu zuten eta Almandozkoa izan zen irabazle.

04

EKAITZA ELKARTEAK 25 URTE

Uztailaren 30ean egingen da ospakizuna



MUEBLES A METS

Iarunbat
arratsaldetan
irekia

4000m² ERAKUSKETA
moblez beteak:

- errustikoak
- modernoak
- klasikoak
- gazteentzako
- sukaldeak
- bainugelak
- atsedenaldia
- iluminazioa
- dekorazioa
- merkealdiak
- tapizak

Sastrin karrika,
3.2 - 3.4 Alkaiaga
31789 BERA

Tfnoa. 948 630 537
Fax. 948 631 443

INFORMAZIO GEHIAGO:
www.muablesamets.com



Samier artikulatua moterrakin 90°190



Latex Koltxoia 100%

575 €

Eskaintza

Abuztuko bigarren
hamabostaldia itxita

Uztaila, abuztua eta iraileko larunbat arratsaldeak itxita

Kareta OSTATUA



UDAKO ORDUTEGI BERRIA
(IRAILAREN 15A ARTE)

EGUNERO IREKIA 11:00ETATIK 21:00ETARA
ASTELEHENAK ITXITA

TAPAK, PINTXOAK eta ENTSALADAK

Tel. 948 599496 • DANTXARINEA

DATUAK...

- **Baztanen eta Bortziritan Agenda 21 delakoari ekin diote udalek, etorkizunerako garapenak nondik joan behar duen guztion artean adosteko helburuarekin.**
- **Horretarako 600 inkesta egiten ari dira uztail hondarrean eta abuztuan, 300 Baztanen eta 300 Bortziritan.**
- **Egitasmo honen bultzatzailea den Cederna-Garalur erakundeko garapen agenteak dira Beatriz Altzuart arraioztarra eta Arantxa Arregi doneztebarra.**



Beatriz ALTZUART eta Arantxa ARREGI *Cederna-Garalur*

ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

«Zer dugun eta etorkizunerako zer nahi dugun erabakiko dugu denon artean»

Aitor AROTZENA

Zer da zehazki Agenda 21 eta zerenek bultzatu du ekimena inguru honetan?

Agenda 21 ez da oraingo kontua, Rio de Janeiron sortu zen 1992. urtean. Gure inguruan bai, berria da. Gauza erraza da, azken finean, dauzkagun baliabideakikusiz, hemendik urte batzuetara gure zonaldea nolakoa izatea nahi dugun aztertzea da. Udalez gain, bizilagunak eta interesatuak dau den guztiak kontuan hartu behar dira hau bultzatzeko. Denon artean konpromisoa hartzea da helburua. Duela bi urte hasi ziren Bortziritan hau martxan jarri nahiean, bilerak egin ziren. Zentronikon izan ginen udal ordezkariak eta Cedernakoak, han proiektu batzuk martxan zituztelako. Lehendabiziko Aalborg-eko kartari adostasuna eman eta Nafarroako Gobernu Ingurumen Departamentura eta Bruselara bidali zen. Gero, Nafarroako Gobernuak dirua eman du, diagnostikoa egiteko %100 ordainduko du.

Inguruko udalek zer harrera egin diote proiektu honi?

«Bortziritan 300 eta Baztanen 300 inkesta egiten dira, horietatik 120 Elizondon. Sexua, adina eta bertze aldagaiak kontuan hartuko dira, iritzi ezberdinak biltzeko»

Harrera oso ona. Ekainaren 23an egin zen aurkezpena Baztanen eta Bortziritan, Agenda 21 zer den jendeak garbi izan dezan eta zer pausu emanen diren jakin dezan.

Baztan eta Bortziriak aipatzen dituzue... ttipi-ttapak hartzen duen bertze eskualdetara ere ailegatuko da Agenda 21?

Dena batean sobera izanen litzateke, Malerrekako errealtatea eta Bortziritakoa ez baitira berdinak. Horregatik, Malerrekako Mankomunitatearekin eta biltzen hastekoak gara, eta poliki-poliki martxan jarriko dugu. **Garapena zein bidetik joan behar den jakiteko inkesta egiten ari zarete...**

Bortziritan 300 eta Baztanen 300 lagun elkarrizketatuko dira karrikan. 120 Elizondon egiten dira eta gainera-

koak herrietan. Sexua, adina eta bertze aldagaiak kontuan hartuko dira, iritzi ezberdinak biltzeko.

Behin inkesta hori egin, aztertu eta emaitzak jakinik, zein izanen da hurrengo urratsa?

Inkesta uztaila eta abuztuan egiten da eta gero, iraillean, berriz ere elkartuko gara denak, hortik zer atera den ikusteko. Orain arte udal agintariek dakite proiektu honen berri eta gero idazkariei eta bertze udal langileei jakinaraziko zaie eta lan taldeak osatuko dira. Lehentasunak ezarriko dira eta abendurako gure zonaldea nola dagoen erakusten duen «argazki» bat izan nahi dugu.

Baztan eta Bortzirik errealtate ezberdinak dituzte. «Argazkia» ere ez da bietan berdina izanen...

Errealtate ezberdin horiek nolabait isladatzeko, galdera ezberdinak ere badaude Baztan eta Bortziritako inkestetan. Baztanen, adibidez, harrobi edo industrialdeei buruzko galderak sartu ditugu. Bortziritan gazteentzat zerbitzuak eta turismo aldetik gehiago landu behar dela iruditzen zitzaigun...



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

Panttaleon Errandonea, Ekaitza elkartearen lehenbiziko presidentea eta Xabi Altzuri gaur egungoa, tartean Gabi Goia, lehendabiziko junta hartan eta honetan lanean ari den kidea dutela.

UZTAILAREN 30EAN EKITALDIAK IZANEN DIRA ARANTZAN

Hogeita bosgarren urteurrena ospatuko du Ekaitza Elkarateak

Arantzako Ekaitza elkarateak hogeita bostz urte bete ditu eta urtemuga hori ospatzeko larunbat honetan, uztailaren 30ean, arratsaldean eta gauean egingen den besta prestatu du. Herri kirolean proba konbinatuan 30 urtekoen hamarkadakoak 20 urtekoen hamarkadakoekin kontra arituko dira; pilota partiduan Joseba Pikabea eta Beñat Mitxelena gazteak, Rafa Errandonea eta Ander Agesta "beteranoen" kontra arituko dira. Sebastian Lizaso eta Andoni Egaña bertsolariaren saioa aditzeko modua ere izanen da, eta gero, afaria izanen da bertsolari eta antzerkilariekin. Mende laurdeneko ospakizuna behar bezala akautzeko, Mikel Salaberrirekin gaupasa izanen da.

Aitor AROTZENA

Ekaitza elkaratearen berri hurbila izateko, 25 urte hauetan elkaratearekin harreman estua izan duten per-

tsonekin bildu gara: Panttaleon Errandonea izan zen lehendabiziko lehendakaria, Xabi Altzuri da gaur eguneko lehendakaria eta Gabi Goia le-

hendabiziko batzorde hartan eta gaur egunekoan ari da lanean.

Gabi Goiak aipatu digunez, «elkaratea sortzeko lehen urratsak urte haietan 18-20 urteko gazteak ginen talde batek eman genituen. Garai hartan gehienok ikasleak ginen, herri mailan aunitz mugitzen ginenak: parrokiako lokaletan antzerkia egiten genuen, Arantzako dantzak berreskuratu genituen bertako txistularien laguntzarekin, herriko bestetan kantaldiak antolatuta (Laboa, Lete, Urko...), urte zaharreko gaupasak, gaztain jateak, mendira ateraldiak...».

Sortze datari dagokionez ere ezin da erran egunez egun orain betetzen dituela 25 urte Ekaitzak. Batzordearen eskuetan dagoen sorrera aktan 1979ko martxoaren 19a agertzen da

baina erran behar da 1980ko irailan Iruñako Gobernu Zibiletik datuak eskatu zituztela egoera legalizatzeko eta estatutuak behin eta berriz aldarazi zizkieten onartuak izan baino lehen. Garai hartan zaila zen "elkarte" bat sortzea eta dena zorrotz begiratzen zuten. Pantaleon Errandonearen ustez, 25. urteurrena aurten ospatuko bada ere, lehenagotik ere aritu ziren elkarte sortzeko lanean inauterietako mozorroen taldean ateratzen ziren koadrilakoak.

Ideologia aldetik, momentu horretan Euskal Herrian eta karrikan zebiltzan ideiak xurruptzen zituzten: abertzaletasuna alde batetik, bertetik elkartzea, "herri-taldeak" sortzea eta Arantzako, kultura eta ohiturak babestea eta bultzatzea.

Guzti honetan aritzeko, Gabik adierazi digunez, «gure artean elkartzeko toki bat nahi genuen. Helburuetako bat gure lokala izatea zen elkarrekin lasai egoteko eta gure ekintzak eta bestak antolatzeko. Ez zen erraxa izan leku bat bilatzea. Orain dugun lokal berbera alokatu genion Isidro Etxeberriari eta auzolanean etxea konpontzen hasi ginen ostatua eta itxurako egoitza bat plantatzeko». Pantaleon Errandoneak borondate onez onartu zuen presidente kargua, nahiz eta bere gibeletik bultzatzen eta ideiak ematen talde bat egon eta bereziki Xatur Larralde, bera izan baitzen proiektu honen sortzaile nagusia. Joan diren 25 urte hauetan, hainbat eta hainbat pertsonak lana egin dute zuzendaritza batzordeetan eta gaur egun bertze belaunaldi batekoak nagusi dira batzordean: Xabi Altzuri da gaur egun lehendakaria.

DANTZAK BERRESKURATZETIK BASERRITARREN EGUNERA



GABI GOIAK UTZITAKO ARGAZKIA

Arantzako dantzari taldea, Ekaitza elkartearen atarian.

Lokala lortu, egokitu eta hurrengo urteak mugimendu handikoak izan ziren Ekaitza elkartearen eta Arantzako ere. 130 bazkideetik goiti izan ditu Ekaitzak garairik onenetan. Herrian antolatzen ziren ekintza gehienetan parte hartzen zuen elkarteak bai antolatzailerik edota laguntzaile gisa. Kirol aldetik ahalegin handia egin du beti: pilota txapelketak, futbito taldea, mendi ateraldiak...

Baserritarren Egunaren antolatzeko lana beregain hartu zuen eta Gazte Asanbladarekin batera bestak eta kultur ekintzak bultzatzen aritu da azken urteotan. Urte hauetako batzordeek behin eta berriz saiatu izan dira lokalaren jabe izaten. Oraindik ez dute lortu baina asmoa ez dute baztertu. Momentuz, datozen hamar urtetarako kontratua sinatu dute, errenta ordainduz Errontan segitzeko.

Gora beherak izan dituzte urte hauetan, garai mottelak ere; hala ere beti aitzinera segitzeko indarrarekin dagoen norbait izan dute.

Momentu honetan 73 bazkide ditu Ekaitza elkarteak. Erronta izeneko etxean segitzen dute apopilo. Batzordean hamar pertsona daude (lehendakaria eta lehendakari-ordea, idazkaria, diruzaina eta sei komisiokide). Hiru belaunaldiko juntakideak gaude eta primeran moldatzen gara. Gustura ari gara lanean eta momentu honetan 25. urtemugako besta polit bat antolatzeko da gure ilusiorik handiena.

Urtean egiten ditugun ekintzen artean hauexek dira nagusienak: Arantzako Mendi Itzulua, Ternida eguna, Baserritarren eguna, bestetako eta Inauterietako Pilota Txapelketak, Kultur egunak, Mus Txapelketa...

Xabi ALTZURI Ekaitza elkartearen presidentea

"Arantzako mapa topografikoa elkartearen babesarekin egiten da"

Zein dira Ekaitzak urtean egiten dituen lan nagusiak?

Bi urtetik Arantzako mendi itzulia antolatzen dugu. Herriko pilota txapelketa antolatzen dugu bestetan eta azaroaren 1eko Baserritarren Eguna. Horiek dira garrantzizkoenak, baita Kultur Eguna ere. Ez da erraza berrikuntzak sartzea, baina beti saiatzen gara zerbait egiten.

Etorkizunera begira, urtero-

ko ekitaldi hauetaz gain, egitasmo berririk baduzue?

Jende berria sartu gara juntan, inoiz aritu ez ginenak, eta lanerako gogoia dago. Gauza berri batzuk egin ditugu. Ondotik sartuko den taldea ere gogoz sartuko da. Orain arte egiten diren ekitaldiak egiten dira seguru eta ondotik, niri gustatuko litzaidake hilabetero ekintzaren bat egiten saiatzea. Zaila da, baina urteurre-

neko ospakizunetik aparte, irail aldean bertze afari bereziren bat egiteko asmoa dugu, kontzerturen bat edo bertze, honeri bizi berria emateko.

Ekaitzak babestuta, Arantzako mapa topografiko egiteko asmoa ere baduzue...

Lesakako gazte bat, Kirru, etorri zen, berak Arantzako mapa topografikoa egitea interesatzen ote zitzaigun galdetuz, lehengo bide zaharrak eta bidaxkak sartuz. Ideia ona iruditu zitzaigun eta Ekaitza elkarteak hori bultzatzea interesgarria da.

ttipi-ttapa aldizkaria

Andutzeta, 12

E-31760 ETXALAR (Nafarroa)

Tfnoa: (+34) 948 63 54 58

Faxa: (+34) 948 63 54 57

www.ttipi.info

info@ttipi.net

Argitaratzailea: ttipi-ttapa fundazioa.

Presidentea: Pello Apezetxea.

Kudeatzailea: Joxemanuel Irigoien.

Zuzendaria: Aitor Arotzena.

Publizitatea: Kulturkari, SLU.

Administrazioa: Amaia Goia.

Berriemaileak: Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Peio Zestau, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Juan Carlos Mortalena, Laetitia, Sandrine eta Krispin, Angela eta Xamo, Nerea Altzuri, Oskar Txoperena, Joseba Olagarai, Nerea Mitxelorena, Aitor Arotzena, Amaia Odriozola, Ainhoa Irazoki, Rakel Goñi, Rakel Amigo, Iratxe Kontsumitzaileen Elkarte...
Imprimategia: Gertu.

Erakunde laguntzaileak: Bera, Leitzeta, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi, Sara, Azkain eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarte, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea...

Harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria	28 €
Espainia	28 €
Ipar Euskal Herria	40 €
Europa	40 €
Amerika	108 €
Baztan, Urdazubi, Malerreka eta Leitzeta	23 €



**Aldizkari honek Nafarroako
Gobernuaren laguntza jaso du**



**Aldizkari honek Eusko
Jauriaritzako Kultura Sailaren
laguntza jaso du**

• IRAKURLEAK MINTZO •

Bidezkoa zena Aralarrek bidegabatu zuen

Otsailaren 24an ikurriña udaletxeko balkoitik kendu zen eta egoera honekin kezkatutako herri-talde batek Ikurriñaren Aldeko Taldea eratu zuen, ikurriña udaletxeko balkoian jartzea helburu duena.

Ikurriñaren inguruan herri kontsulta bat egiteko nahia bazela ikusita, Ikurriñaren Aldeko Taldeak talde politiko ezberdinekin (Eusko Alkartasuna, Larrain Herri Plataforma eta Aralarrekin) biltzea erabaki zuen, denon artean herritarren iritzia ezagutzeko bide bat aurkitzeko asmoz. Bide hau herri kontsulta bat burutzea izan zitekeela erabaki zen.

Erabaki honekin batera, lau talde hauen arteko adostasuna bilatu da erabat, bai galderari, bai bozkatzeko papeletari eta baita egunari dagokionez ere. Gu hirurok (Ikurriñaren Aldeko Taldea, Eusko Alkartasuna eta Larrain Herri Plataforma), hasiera hasieratik ados egon gara galdera nola izan behar zuen erabakitzerakoan, nahiz eta Aralarrek beste galdera bat planteatu nahi izan zuen. Ez zen lan erraza izan eta hasiera batean desadostasunak izan arren, gehiengoz, denok horrela onartuta, UDAL-LETXEKO BALKOIAN IKURRIÑA BAI ALA EZ? galdetzea erabaki genuen; galderak berak ematen dituen bi erantzunen artean erabakitzeakoa: BAI ala EZ. Galdera eta erantzunak, garbiak. Papeletak halaxe egin genituen. Kanpaina abian zela,

Aralarrek, adostutako papeletak ez ziren beste batzuk banatu zituen ekainaren 16an (kanpainako bukaeraren bezperatan), herri kontsultari berari, horren gainerako bulkatzaileei eta herri osoari, orohar, IRU-ZURRA eginez. Jokabide honen ondoren, bai Ikurriñaren Aldeko Taldeak, bai Eusko Alkartasunak eta bai Larrain Herri Plataformak, ekainaren 19rako iragarrita zegoen herri kontsulta bertan behera uztea erabaki genuen. Aralarrek beste papeleta bat ateratzeak, herri kontsultarekiko genuen akordioa erabat hautsi zuen, ordurarteok gai honen inguruko elkarlana eta konfidantza zapuztuz.

Eta guri "harrigarria" iruditzen zaiguna da, Aralarrek berak oraindik ere halako jokabide ziztrina "legitimotzat" jotzea eta beraien papeleta "beste aukera bat bezala" har-

itzea, papeleta bakarra izanen zela adostuta zegoenean.

"Legitimoa"ez, baina Aralarrek gai honekin egingarriak beste izen asko izan ditzake...

**Ikurriñaren
Aldeko Taldea
Larrain
Herri Plataforma
Leitzako
Eusko Alkartasuna.**

EPPKri elkartasuna

Azken Ttipi-Ttapan Patxi Zabaletari elkartasuna adierazteko idatzi bat agertu zen. Bertan Zabaleta biktima moduan jartzen da, berak egingarri buruz berriz, ez da azalpenik ematen. Patxi Zabaletak zenbait preso gutun pribatuak publiko egin zituen horien erabilera politiko alderdikoi eta maltzurra

egiteko. Hor kokatzen da auziaren muina. Jendeak gertakari hori ezagutu zezan EPPK-ak erantzun bat eman du Zabaleta "persona non grata" izendatuz.

Balizko mehatxuekin biktimismoa egitea baino Euskal Preso Politikoei egindako iraina zuzentzea hobeki legoke. Gure elkartasuna sar-raski kartzeletan, baldintzarik gogorrenetan, gure herriaren alde borroka eredugarri gartzten duen kolektiboari. Zanpatuarekin zital eta zanpatzailerekin goxo aritu ohi direnei ez diegu, momentuz, elkartasunik emanen.

**Joxelu Etxeberria Lekuona
Josu Unson Pabolleta
Eneko Zestau Aranibar
Imanol Larrañaga Alberdi
Kotto Altzuguren Perurena
Oskar Goñi Petrarena
Berako Euskal Preso
Politiko ohiak.**

**Rekordatorioak
egiten ditugu**

**Nahi duzun argazki eta
testuarekin prestatua**

KULTURKARI
Andutzeta 12, Etxalar
Tfnoa: 948 63 54 58

**Txema
ALDABE TELLETXEA**

*Urak dakarrena
urak daroa
zuk emandakoa
gurekin geldituko da.*

**TTIPI-TTAPA Fundazioko langileok bat
egiten dugu Txema Aldabe Telletxea
laguntzaile-lankidearen familiak eta
lagunek une gogor hauetan
bizi duten saminarekin.**

• PRENTSATIK BILDUTAKOAK •



Nabarra 2005-07

«Hemen, azken finean, hamar lagun inguru gara. Baina bakoitzak badugu, behar bada, proiektu pertsonalak ateratzeko grina. Gero, laguntzailatzat hartzen ditugu ondokoak eta proiektu horiekin gertatzen dena zera da, erantzun ona dutela kritika aldetik. Badirudi prentsa ona dugula eta Beran gauza aunitz egiten direla»

Joseba IRAZOKI
Berako musikaria
Nabarra 2005-07

«(Legia karrikako) izeia moztea izugarrikeria da, baita sentsibilitate eta gusto estetiko falta handia ere. Udalak ez du transparentziarik izan gai honetan».

Josu GOIA
Berako alkate ohia
D.Navarra 2005-07-21

«Musika Eskola eta Osasun Zentru inguru horretan aparkalekuak behar dira eta pinua, penarekin bada ere, horregatik bota dugu».

Helena SANTESTEBAN
Berako alkatea
D.Navarra 2005-07-21

• 11 GALDERA LABUR •

Beratar batentzat zer da ohore handiagoa: San Esteban egunean dantzatzea edo Gure Txokoako presidentea izatea?

Bietan parte hartzea da inportanteena.

Lehendakari eta atezaina. Non gelditzen dira penalti zailenak?

Futbol zelaian. Bertzeak ere ez dira errazak, baina baduzu lan talde bat laguntzeko.

Bordondantza edo Iñude eta Arzaiaik?

Dudik gabe Bordondantza, nahiz eta besta egiteko iñudeak hobe izan.

Bestatan, dantza, kirola edo juer-ga?

Hiruak egiten ahal dira eta horretan saiatuko gara.

San Esteban egunerako planik onena?

Dantzara joan, ikusi edo dantzatzea, bertakoa dena auziatu eta gero besta ona egin.

San Esteban eguneko dantza ofiziala, Larraintantza edo berbena?

22 urtez ofizialak egin ditugu, ongi pasatzeko larraintantza eta ligatzen saiatzeko berbena. Denek badute bere gauza.

Kukañara hurbiltzen zara?

Ondoan bizi naiz, baina irristeko beldurra ematen dit. Hobe zuzenean urean sartzea.

Zer dute faltan eta zer soberan San Esteban bestek?

Faltan herri bazkariaren ondotik herri giroa segitzea. Soberan, egun horretako aparra. Aparra zerbezan, ez lurrean.

Abuztuak 7, lanean edo ohatzean?

Nahi nuke ohatzean egotea, baina ez dut uste.

Gure Txokoa-Beti

Gazte hurrengo derbia noiz?

Espero dut hurrengo

denboraldian Preferenten izatea.

Oporretarako, mendia edo hondartza?

Mendia hondartza ondolan.



Ander ALTZURI

Berako dantzari ohia eta Gure Txokoako lehendakaria

MENDI
ostiatua

Santago 25
948 580 313
ELZONDO

BERRIKO ETXKO EDRETEGIA

CAFE DE A M A R R A

MAIXAN ETA VÉRONIQUE
SARA • TEL 0559542519

Lanchas

PARKETAK - TARIMAK
KUTXILLATZEA ETA BERNIZATZEA
ESTALDURA OROKORRAK

Tele: 948 430 715 - 407 406 781

SOULE

Hileta artea

© 948 453444•629 659583
ARIZKUN

Pitti
eskabazioak

Tfnoa:
616 513 491

Mendiola eta...
ZURITA

APARAN, S.A.
BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagarriak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab...

Tel: 948 456 080
Fax: 948 450 334
DONEZTEBE

Carlos
Garañakelxeu
Elzeuik

abokatua

948 581 408
948 580 403
Francisko etorb. 12
Amestalde 38.
ELBETE

MALERREKA

«Euskara Malerrekan» aldizkaria argitaratu da

Mankomunitateko Euskara Zerbitzuaren eskutik

ttipi-ttapa

Malerrekako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak «Euskara Malerrekan» izeneko aldizkaria argitaratu du. Bi helburu nagusi ditu argitalpen honek, batek Malerrekan euskarak bizi duen egoeraren berri ematea eta bertzetik, euskarari buruzko motibazioa indartzea. Bideanabar, Malerreka Euskara Batzordearen berri (nortzuk osatzen duten, lan egiteko modua eta helburuak...) eta hizkuntza eskubideei buruzko informazioa ematen da.

Argitalpena Malerrekako etxe guztietan partituko da.

Udako Kirol Eskola Errekarekin

Doneztebeko Erreka Kirol Elkarteak Udako Kirol Eskola antolatu du aurten ere, Doneztebeko Udalaren laguntzarekin. Urteik urtera zonaldeko gazte gehiagok parte hartzen dute ber-



UTZITAKO ARGAZKIA

Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak argitaratutako aldizkariaren azala.

tan. Aurtengoan bosgarren edizioa egingen da eta kirol ezberdinak lantzea bilatuko dute.

Eskola hau astelehen, asteazken eta ortziraleroko burutuko da, abuztuaren 1etik abuztuaren 31ra, eskolako frontoian eta kiroldegian.

Udako Kirol Eskola honetan izena emateko prezioa 33 eurokoa izanen da Erreka elkarte-bazkideentzat eta 36 eurokoa oraindik egin ez direnentzat. Izen ematea Kirol Eskola hasten den egun berean izanen da.

ELKARTASUNA



ARTXIBOKOA

Udan hainbat haur etortzen dira Saharatik eskualdera.

Saharako Elkartasun Taldeak jatetxetan otorduak zozketatu ditu

ttipi-ttapa

Saharako Elkartasun Taldeak aurten ere zozketak egin ditu udan Saharako neska-mutikoak inguru honetako herrietara ekarri ahal izateko. Inguruko jatetxetan bi lagunendako otordua zozketatu dute eta hauek izan dira zenbaki sarituak:

Leitzan

Arakindegia1356
Sagasti0690
Erreka sag.2087
Landa1527
Musunzar0894
Beatrizenea2042

Ezkurran

Baranka1579

Iturenen

Herriko Ost.1962
Altxunea0849

Aurtizko Ost.2183

Gaztelun

Gazteluko Ost. ...2310

Oitzen

Oizko Ost.1104

Beintza-Labaienen

Beintzako Ost. ...2404

Elgorriagan

Hilarion1672

Lesakan

Kattu1091

Konkanta1069

Irubide2015

Etxalarren

Herriko Ost.0805

Arizkunen

Uxoa1921

Elizondon

Galarza0735

Kortarixar2236

Eskisaroi1170

Itzalargikoborda 1027

Elbeten

Elbeteko Ost.0685

948 631 493 LERROKORRO
948 630 308 ESTETNA

ONGI PASA SAN ESTEBANAK!

dupe
Iluspaingegia
estetika

ARTEKARI TALDEA
ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- Langile autonomoak
- Nekazariek eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-Kontratutarako laguntzak
- Enpresa berriz egiteko sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Erenta aitortpenak
- Ebarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bidegarritasun planak eta aurrekontuak

LESANA: Bittoria, 71-behea
Tel: 948 637 050
Faxa: 948 637 404

BURLATA: La Viña, 4 · Tel: 948 133 328 · Faxa: 948 133 713

BERA

Miriam Blas Espainiako txapeldun izan da laugarren aldiz

Mendi bizikleta jautsierako elite mailan nagusitu da berriz ere

Amaia eta Ainhoa

Uztailaren 16ean Galiziako Vilaboan ospatu zen Espainiako mendi bizikleta jautsiera txapelketa eta Miriam Blas txapelduna suertatu zen emakumezkoen elite mailan Gimat-Santa Cruz taldearekin. Lehenengo zatian Eva Castrok lau segunduko abantaila atera bazion ere, bigarrenean Castrok ez zuen denbora hobetu. Miriamek, aldiz, bigarren zati honetan aintzina hartu zionez, azkenean txapelketan garaile suertatu zen laugarren aldiz. Egun batzuk Beran pasa ondoren, uztailaren 21ean Espainiako selekzioarekin elkartu zen eta Italiako bidea hartu zuen igandean Europako txapelketan parte hartzeko. Berri hau idazten ari garenean ez dakigunez zein izango den emaitza, hurrengo alean emango dugu guzi honen inguruko informazioa. Bertzalde, aipatzekoa da beratar gehia-



ARGAZKIA: TELLETXEA

Espainiako txapelketa irabazi ondotik, selekzioarekin Italiara joan da Miriam Blas, Europako txapelketan parte hartzera.

gok parte hartu zuela txapelketan: Eneko eta Egoitz Ado anaiak eta Iñigo Blas. Eskualdetik Xabi Telletxea igantzia-

rra eta Oronoz-Mugiriko Iñaki Esarte ere aritu ziren. Hauen artean hoberen ibili zena Egoitz Ado da sub-23 mailan

laugarren postua lortuz. Berako Iñigo Yanci ere parte hartzera joan zen baina entrenamenduan erorketa bat izan zenez bertan behera utzi behar izan zuen txapelketa. Arantzako Asier Apezetxea rally modalitatean aritu zela ere aipatzekoa da.

Ricardo Baroja eskolak 25 urte beteko ditu

Berako Ricardo Baroja Ikastetxe Publikoak 25 urte beteko dituela ospatzeko, urriaren 8an, larunbata, ospatuko duten besta egunean parte hartzeko dei egiten die bere eskolatik pasatu diren eta ongi pasatzeko gogo duten guztiei. Haurrentzako jolasak, bertsolariak, txaranga, bazkari herrikoia... eta aunitzez gauza gehiagorekin ere gozatzeko aukera izanen dute bertara hurbiltzen direnek. Irailatik aitzinera kamisetak, pins eta bazkarirako txartelak salgai egonen dira.

FLASH

Altzaferua bota aitzineko ekitaldiak

Herriko beste hasiera abuztuaren 2ko altzaferuarekin ematen bazaie ere, aitzineko asteburuan giroan sartzeko hainbat ekitaldi antolatu dira. Uztailaren 30ean, larunbata, 16:00etan 4x4 autoen ikuskizuna izanen da Postasen eta 19:00etan Euskal Jai Alairen eskutik Zesta Punta Jaialdia. Eztegarra Pilotalekuan 10 pilotariren arteko partidak izanen dira kiniela sisteman. Igandean, uztailaren 31n, kiroldegi aitzinean herri kirol jaialdia egingen da 19:00etan. Nafarroako koxkor biltze txapelketa jokatu dute neska eta mutilak eta ondotik herriko kirolarien arteko desafioa ikusteko aukera izanen dugu, talde mistoen artekoa.

Ehizian aritzeko egutegia

Uztailaren 16an egin zen Ehizi eta Arrantzako Elkarteko batzar orokorra eta bi erabaki hartu ziren. Alde batetik, bazkideen urteko kuota goitzea eta bertetik, Lizuniagako ehizi postuetan ibiltzeko, orain arte bezala egunero zozketa egin beharrean, datorren denboraldirako egutegia egitea.

BERA Zure ingurua klase guzietako insektuz (somorro, zinaurre, armiarma, kukuxu...) eta arratoi zaxgarroz garbitu nahi baduzu, deitu! Termita eta Pipien tratamenduak

GOYEKO Industria Garbitasun Produktuak

Tel: 948 630 155 (Alkaiaga Industrialdea) LESAKA

ANSONEA Jaletxea

Ostatu eta terraza berriak ireki ditugu

Eguneroko menua, karta eta astoburutan menu bereziak

Foruen Plaza 1 - 948 631 155 - BERA

udana salazonek

UNE-EN-ISO 9001

IAC SISTEMA DE GESTIÓN DE CALIDAD CERTIFICADO

SCC-02-0199

Inportaziozko leben kalitateko bakailu gazitua
Bakailu gezatua eta kongelatua, erabiltzeko prest

Alkaiaga ind. • Banarta, 8 - 23. pabilioia • LESAKA • Tel. 948 631536 • Fax: 948 631550

LESAKA

4.617.977 euroko udal aurrekontua onartu da

Andra Mari Erresidentziak 441.796 eurokoa izanen du

Aitor AROTZENA

Herriko Etxeak 4.617.977 euroko diru sarrera eta irteerak izanen ditu aurten, batzarrak onartutako udal aurrekontuaren arabera. Andra Mari erresidentziaren aurrekontua, berriz, 441.796 eurokoa izanen da, gastu eta sarretan berdindua.

Udal aurrekontuari dagokionez, aipatzekoa da gastuen %55a inbertsioetara bideratuko dela, 2.543.970 euro guzira. Gasturik handiena, Eskriboenean lokalak erosi (670.000 euro) eta bertan etxebizitzak egiteko proiektua eta obra zuzendaritzan (131.000 euro) joanen da. Udalak 13 apartamentu egiteko asmoa du, Amasa (guardia zibilaren kuartel zaharra), Txanpalea (behean Kaminero ostata zuen etxea) eta Eskribonea moldatuta. Apartamentu horiek lur azpiko 13 aparkaleku ere izanen dituzte. Proiektua Maria Urmeneta arkitektuak idatzi

du. Apartamentuak saldu eta diru hori Kaxerna erosteko baliatu nahi luke Udalak, nahiz eta itxura batean, jabeak ez duen saltzeko intenziorik.

Etorkizuneko bi proiektu handietan ere joanen da dirua aurten, igerileku estalian eta kultur etxean, alegia. Igerilekua estaltzeko 225.000 euro bideratuko dira eta kultur etxeko egitasmoan, eliza barnea nola egingen den zehaztuko duen proiektua idazteko 98.000 euro.

Baserrietako bideak moldatzeko 340.000 euro gastatuko dira eta eta plantazio eta mendi lanetarako 240.000 euro. Bide publikoen azpiegitura berritzeko 196.400 euro bideratuko dira. Proiektu eta ikerketa lanetan 120.000 euro joanen dira.

Hainbertzeko inbertsioa suposatuko ez duten bertze proiektu interesgarriak ere sartuak ditu udalak aurtengo in-

bertsioen artean. Honela, udalaren web-orria berritzeko 12.000 euro erabiliko dira; trafiko seinaleak eta seinalizazio horizontala berritzeko 62.000 euro. Antoiun egiten ari diren Babes Ofizialeko Etxebizitzeko obra zuzendaritzan 51.500 euro gastatuko dira eta bide publikoetan ezinduentzako sarbideak egiteko 22.000 euro. Udal pilotalekuan moldaketa lanak egiteko 30.000 euro erabiliko dira. Aldagelak moldatu eta goitiko harmailetara bertze sarbidea egin nahi dira diru honekin. Alkaigako enpresa mindegian moldaketa lanak egiteko 80.000 euro erabiliko dira eta mendirako 4x4 autoa erosteko 30.000 euro. Modu berean, 30.000 euro erabiliko dira herrilurrak berreskuratzeko hitzarmenean. Elektrizitate-kableak lur azpitik pasatzeko obra zuzendaritzan bertze 50.000 euro gastatuko dira.



UTZITAKO ARGAZKIA

Itsaso Fagoagak Espainiako Presidentearen Kopa irabazi du

Uztailaren 16 eta 17an jokatu zen Valentzian Sket Olinpikoan Espainiako Presidentearen Kopa. Azken urteotan Jone Fagoaga herritarrak irabazi du txapelketa hau, baina aurten, falta zela aprobetxatuz, Itsaso Fagoaga bere ahizpa gazteak eskuratu du garaipena. 15 urterekin, Itsasoren lehendabiziko garaipen handia izan da. 75 plateretik 57 hautsi zituen Fagoaga ahizpa gazteak. Bien bitartean, Jone Fagoaga Belgrado aldean ibili da, Europako eta Munduko Kopan parte hartzen. Lehenik Europakoan aritu zen, eta Sanferminetako oroimenez edo, ez zuen txapelketa ona egin. Munduko Kopan aldiz, bikain ibili zen. Hamaseigarren postuan akautu zuen eta bi platerengatik ez zuen finalean sartzea lortu. Halere, 75 plateretik 66 hautsi zituen, lehendik ere bere eskuetan zegoen Espainiako errekorra (63) aisa gaindituz.

LOBEKO

Lore eta landareak

Frain auzoa • LESAKA
Tfnoa: 948 637826

GOZZALDO

Barriko barnea, kanpotan puztu behar duen laguntza

Tel: 948 637 660
689 481 980

IRU BIDE

ENTZERA

Tfnoa: 948 637 127
LESAKA

XATURETKEA

Zaharrei
JATETKEA

Tfnoa: 948637027 LESAKA

Tasilek • mantelariak • ahateko mairidirek
eskalako harrak mantelak etab...
berdatsen ditugu

Herriko barnea,
kanpotan puztu behar duen laguntza
eta puztu behar duen kanpotan ere
lanak berdatsen ditugu.

Tel: 948 637 660
689 481 980

Plaza berria 4 - ra
eta ikasi bertako
eskalari!!!

**MEDIKUNTZA NATURALA
NATUROPATIA**

ONDORIOETATIK INDARTZEKO:
Diabeta • Azma • Zizareak • Larri azaleko alergia
Buruko mina • Oinaren izerdia • Prostata, etab...

**IKUSMENAREN
BERRESKURATZEA**

- Miopia
- Bista albertua
- Estrabismoa
- Begi lausoak-kataraktak

**GIHARRE
ARAZOAK**

- Bixkortzea
- Artritio, erreuma
- Artrosia, lumbalgia
- Bihurdurak, etab

KONTSULTA ORDUTEGIA
Goizez 9etatik 12etara. Arratsaldeaz 2-7etara. Ordua eskatu

943 62 30 55 San Marcial, 7-4 IRUN

ETXALAR

Xabier Ariztegi Nafarroako txapeldun hirugarren mailako aizkolari txapelketan

Txotxongilo erakustaldia izanen da ortziral honetan Kultur Etxean

Joseba eta Nerea

Xabier Ariztegi "San-txin"ek irabazi zuen joan den uztailaren 9an Nafarroako hirugarren mailako aizkolari txapelketa. Iruñean egin zen lehian ederki kostata jauntzi zuen txapela 24 urteko etxalartarrak. Hiru aizkolari neurtu ziren eta bakoitzak bi kana-erdiko eta bi 45 ontzako moztu behar izan zituen. Lan gogorra egin behar izan zuen

Santxinek txapela lortzeko. Gorriti hasi zen aitzinetik lehenbiziko enborrean baina bigarretetik Ariztegi aitzin hartu zuen. Ez zuen inoiz alde handirik lortu baina zuenari eutsi zion eta azkenean txapela jauntzi zuen. Hau dela eta, orain bigarren mailan arituko da Xabier. Mar-txa honetan segitzen badu zer erran handia emanen du aizkoraren munduan. Gogor entre-

natzen badu bederen, handienen parera ailegatzeko aukerarik ez zaio faltako.

Txotxongilo ikuskizuna Kultur Etxean

Ortziral honetan, uz-tailak 29, txotxongilo ikuskizuna izanen da Kultur Etxean arratsaldeko 8etan. «Bihar» taldeak eskainiko du eta sarrera debaldekoa izanen da.



ARTXIBOKOA

Iruñeko txapelketaren ondotik 2. mailara pasatu da Xabier Ariztegi. Argazkia joan den urteko bes-tetakoa da, herri-kirol erakustaldikoa. Ikusiko ote dugu aurten ere?



ARGAZKIA: JOSEBA OLAGARAI

Uztailaren 16an haurrentzako puzgarriak izan ziren igerilekuan. Badira urte batzuk udalak herriko ttikientzat joku hauek paratzen dituela. Urteroko arrakasta ikusita, aurten ere goiz-arratsalde izan zen aukera puzgarrietan ibiltzeko. Eguraldi ederraren laguntzarekin, haur parrasta ibili zen egun osoan.

HERRIKO
ESTATU - JASETSEA

Ariztegi, 31 • 948 637 030
Tasua • 900000

LEGARRA
BERRIKUNTZA
oposizioak prestatzeko
liburuak ekartzen ditugu
Egunero irekia

Tel-Faxa: 948 637 030 - Albistur, 9 - LESAKA

DEÑE
Lentzeria
Merterku

948 637 514
Herriko Zuzen 9 - LESAKA

USOA
nekazari
kooperatiba

ganaduarentzat
pentzurik egokiena

Tel: 948 635 214 - ETXALAR

TALLERES BERRIZAUN
GASOLINERA LESAKA
IMANOL TELLETXEA ZOZAYA

Gasola etxera eramaten dugu

Tel. 948 63 74 60 31770 Lesaka (Nafarroa)

ARANTZA

Ekaitza elkarteak 25. urteurreneko ospakizuna egingen du larunbat honetan

Pilota txapelketan sei bikote ari dira haundien mailan

Nerea ALTZURI

Ekaitza elkarteak hogeita bost urte bete dituela eta, ospakizun eguna izanen da larunbat honetan, uztailearen 30ean. Horretarako, elkarteke zuzendaritza batzordeak, sortu zenetik orain arte bazkide izan diren guziak gonbidatu ditu. Ekitaldiak arratsaldean eta iluntzean izanen dira. 19:00etan herri kirol proba konbinatua jokatu da, 30 urteko hamarkadako eta 20 urteko hamarkadako artean. 19:45etan jokatu den pilota partiduan ere bi belaunaldi izanen dira aurrez aurre: Joseba Pikabea eta Beñat Mitxelena, Rafa Errandonea eta Ander Agestaren kontra arituko dira. Sebastian Lizaso eta Andoni Egaña bertsolariak ere lanean arituko dira pilotalekuan. 21:00etan afaria egingen da elkartean, bertsolari eta antzerkilariekin eta gero Mikel Salaberri akordiolariarekin gaupasa izanen da.

Pilota txapelketa
Herriko pilota txapelketan haunditan sei bikote ari dira, kadetan lau bikote eta ttikien bi mailatan, pilotari gutti aurkeztu denez, ez da txapelketarik jokatu. Dena den, besteta-



ARGAZKIA: XABI ZUGARRAMURDI

Uztaileko lehenbiziko hamabortzaldiko taldea ageri da euskara barnetegian. Orain eta abuztu osoan hiru talde izanen dira.

ko hondar egunean, finalak jokatzeko direnean, bi partidu jokatu dira aurkeztu diren lagunekin, bat bikoteka eta bertzea eskuz banaka.

Errepideari buruz solasean Iruñean

Uztailearen 15ean, Iruñean izan ziren Arantza eta Igantziko alkateak, Vicente Arozena eta Jesus Mari Begino. Bi alkateak Nafarroako Gobernuko Herrilan Departamentuko zuzendari nagusiarekin, Jose Luis

Etxabarrirekin eta Errepideen Kontserbaziorako Zerbitzuko zuzendari nagusiarekin, Angel Luis Rivasekin bildu ziren, bi herriak N-121-A errepidearekin lotzen dituen NA-4020 bidearen egoerari buruzko kezka azaltzeko.

Arozenak eta Beginok, bederen errepide honetako bihurgune arriskutsuenak moldatzea eskatu zuten. Horretarako, Igantziko harrobia prest dago lan hobretan laguntza emateko eta Herrilan Departamentuaren esku gel-

dituko litzateke zolaberritzea. Hain zuzen, harrobira doan bidegurutzea eta zubia moldatuko litzateke, baita San Jose bihurgunean ere. San Joseko basiliza aitzinean ere moldaketa lanak egin beharko litzateke.

Arantzako alkateak jakinarazi duenez, Nafarroako Gobernuak argi ikusten du lanak beharrezkoak direla, baina beti bezala, dirua da arazoa. Igantzi eta Arantzako bidegurutzean egingen den errotondaz ere aritu ziren.

IGANTZI

Ikasturte bukaera Bertzen

Ekainaren 17an Igantziko hurrek ikasturte bukaerako eskurtsioa egin zuten. Goizean Bertiz Abentura Parkean jostatu ondotik, arratsaldean Bertizko Jaurria bisitatu izan ziren.



MALERREKA

Gazteluko Santo Domingo bestak abuztuaren 3tik 7ra

Azken egunean Xabier Mindegia eta Senosiainen arteko aizkora desafioa jokatu da

Asteazkena 3

19:30etan Suziriak eta ondotik txistulariak herria alaitzen ibiliko dira. **21:00etan** zopak herriko ostatuan.

Osteguna 4

11:00etan kalejirak txistulariekin. **12:00etan** Meza Nagusia. **Ondoren** salda beroa herriko ostatuan. **17:00etan** Mus eta partxis txapelketa. **20:00etatik 22:30etara** dantzaldia Migel Angel AGERRALDE akordeoilariarekin.

Ostirala 5

9:00etan gosaria herriko plazan. **14:00etan** Herri bazkaria, arratsaldean herri kirolak eta ondotik dantzaldia AGERRALDE akordeoilariarekin. **22:00ak** aldera afaria herriko plazan.

Larunbata 6

Haurren Eguna

Goizez eta arratsaldez haurrendako jokoak (puzgarriak eta motoak) eta ondotik txokolatada. **20:00etatik 22:00etara eta 1:00etatik 4:30etara** dantzaldia TXAKOLI



ARG.: IRAIDE SAGARDIAK UTZIAK

Igandean pilota partidak eta trikitixa ikustaldia izanen dira.

taldearekin. **Goiz aldera** Rodeo Americano.

Igandea 7

10:00etan kalejirak. **13:00etan** Aizkora apostua: X. Mindegia-Senosiain. **17:00etan** Pilota partidak (C.D. Erreka Pilota eskola-koak). **19:00etan** Trikitixa ikustaldia (Lesakako Trikitixa Tadea) **20:00etatik 22:30etara** dantzaldia Migel Angel Agerralde akordeoilariarekin.



HERIOTZA

Txema ALDABE

Euskaltegiaren sortzaile eta ttipi-ttapako berriemaile izandakoa

Uztailaren 12ko goizaldean hil zen, eritasun larri baten ondotik, Txema Aldabe Telletxea, Urrotzen sortu eta Donezteben bizi zen euskaltzale suetsua. Euskaltegian, ttipi-ttapan, Kultur Zurkaitzan, Bidasoa Ikerketa Zentroan lan egingandakoa, zinegotzi ere izan zen Donezteben. Bere hiletan kantatutako bertso honek laburbiltzen du, nolabaít, bere bizi emankorra.

Txemari maitasunez
Gaztetatik izana haiz
Lan ixilaren zalea,
Herrian alde lanean
Nekaezin langilea,
Euskal kultura munduan
Beti irikitzen atea,
Euskaltegian sorkuntzan
Zabaldu huen bidea,
Ttipi-ttapan kazetari
Herriko berri emalea,
Ikerketa zentroan bai
Utzia duk seinalea,
Musutruk ta eskuzabal
Hainbat lanen egilea,
Euskaldun euskaltzale ta
Euskararen maitalea.



• Logelak
• Gosariak, bazkariak, afariak...
• Eguneko menua eta asteburutan menu bereziak
• Ospakizunak, kinto bestak, etabar...
• Terraza

HERRI OSTATU
GAZTELU

Tel: 948 450105 • Mug.: 647 043501



TXARUTA, S.L.
Iturgintza, Kalefakzioa eta Gasa

Ongi pasa bestak!

Tel: 948 45 17 63 - 659 77 00 15 • GAZTELU

MENDIALDE
Jatetxea



AMAIUR • © 948453060

SUNBILLA

Santiburtzio bestak abuztuaren 10etik 14ra

Egun haundian binakako segalari txapelketa jokatu da aurten ere

Asteazkena 10
18:00etan proba konbinatuak: 1- desafioa mutilen bi kuadrila artean. 2- Desafioa nesken 4 kuadrila artean.
20:00etan SUZIRIA herriko etxetik, ondotik kalejira Beti-alai txarangareki eta erraldoiekin.
21:30etan Baztan zopak Ulibeltzak elkartearen **00:30etatik 4:00ak arte** Dantzaldia GAUBELA taldearekin.

Ortzeguna 11
San Tiburtzio Eguna
10:00etan argi soinuak herriko trikitilariekin.
11:00etan Meza Nagusia Tiburtzio Deunaren ohorez. **12:15etan** Herriko gartzetxoaren pi-

lota finala; txikiak, umeak eta kimuak.
17:00etan Frontenis txapelketako finalak.
19:00etan Sunbillako binakako segalari txapelketa. **22:30etan** su artifizialak Astondoa pirotekniaren eskutik.
Arratsaldez eta gauzez dantzaldia SALABERRIrekin.

Ortzirala 12
Koadrilen Eguna
Goiz eta arratsaldez kart eta gazteluak.
10:00etan argi soinuak herriko trikitilariekin.
10:00etan Gazteen txirrindularitza proba.
14:30etan Bazkaria Bustitz ostatuan Beti-Alai txarangarekin.
19:00etan toka- aitzur-



ARTXIBOKOAK

Koadrilen eguneko bazkalondoan giro ederra izanen da aurten ere, baita biharamoneko goitibehera jautsieran ere.

zartana txapelketa.
Arratsadez eta gauzez dantzaldia SALABERRIrekin.

Larunbata 13
Haurren Eguna

Egun guztian herria

barna tren txutxua
11:30etan goitibeherak. **12:30etan** akordeolari talde baten

Maria Jesus
harategia
bertako haragia

karrika nagusia, 11
Tfnoa: 948 451 530
SUNBILLA

ALZUBAI MENDI LEN-ESBERRIOIA
Tel./Fax: 948 450 504
Móvil: 659 867 287
SUNBILLA - NAJARRA

Ongi pasa bestak!

FONDA
ostatu

Donibane karrika
Tfnoa: 948 45 01 80
SUNBILLA

SUNBILLA



ARTXIBOKOA

San Tiburtzio egunean binakako segalari txapelketa jokatu da aurten ere. lazkoan, Bidasoa auzoko bikotea izan zen txapeldun.

emanaldia. **15:30etan** plater tiroketa. **17:00etan** tritixa jaialdia. **18:30etan** pilota partiduak: Amarika - Gorriti, Antxia - Elolaren aurka. Nagore - Errandonea, Alustiza-Armendarizen aurka. **Arratsaldez eta gaeuz**

dantzaldia JALISKO BAND taldearekin.

Igandea 14 Ezkonduen Eguna
10:00etan argi soinuak herriko trikitalariekin. **10:00etan** mus txapelketa. **12:00etan** ige-

rilekuan haurrendako probak. **19:00etan Aizkora:** Ramon Latasa Saria. **Arratsaldez eta gaeuz** dantzaldia JALISKO BAND taldearekin. **22:00etan** Herri afaria. **00:30etan** TXUTXIN IBAÑEZ ETA JESUS TAPIZ.

Dain Berri XXI

Ostalaritzako obrak eta moldaketak

Berri Etxeak • 204 lekua
20160 LASARTE-ORRI
Tel. 943 363919

BUSTITZ
OSTATU - JATETXEAK

ONGI PASA BESTAK

LEKU EDER KARRIKA • © 948 450 504 • SUNBILLA

CAMPING BARRESTALONTE BIZTIGAIN

ONGI PASA BESTAK!

31791 - SUNBILLA (Nafarroa)
Tel./Fax.: 948 450 540
www.artzigoan.com
artzigoan@tramaa.com

IRURI MOTOR

Iruribieta etxea
SUNBILLA
© 948 450 399
© 696 974 454

Zaldubi Poligonoa • ☎ 948 580 562 IRURITA



BAZTAN

Zigako San Lorentzoak abuztuaren 9tik 12ra

Aitzineko larunbatean herri
bazkaria eta Goiti-beherak

Launbetea 6 Gaupasa

12:00etan Txupinazoa trikitilariak alaitue. **14:30etan** Herri bazkaria musikarekin alaitue (aitzinetik txartela erosi behar da). **17:30etan** Goitibeheren izen ematea. **18:00etan** II. Goiti-behera jaitsiera. **20:30etan** dantzaldia TRIKIDANTZ taldearekin. **22:00etan** afaria frontoniam. **01:00etan** gaupasa TRIKIDANTZ taldearekin. **06:00etan** DJTXIKI. **06:00etan** gosarie su bazterrean. Gan-Torri autobusa egonen da.

Asteartea 9
Bezpera egune
21:00etan Baztanzo-

pak Etxezurien. **01:00etan** FRANTZISKOarekin dantzaldia. **05:00etan** gosarie elkartetxean

Asteazkena 10
San Lorentzo Egune
10:00etan dianak txistulariekin. **11:00etan** Meza Nagusia San Lorentzoren omenez. Ondotik sorpresa. **12:00etan** luntxa Herriko Plazan txistulariekin. **12:30etan** Nafarroako Jotak. **18:00etan** aikora desafioa bi herriarren artean: Felix Etxeberria-Xeone. **20:00etan** MEXICO LINDO Mariatxi autentikoak. **21:30etan** zantantzarrak txalapartaz alaiturik. **0:00etan** MO-



DESTOrekin dantzaldia.

Ortzegune 11 Gazte ta haur egune

11:00etan gosarie Elkartetxean eta mus zimizte txapelketa (gazte ta helduendako). **12:30etan** garai bateko ohiturek berreskuraturuz etxez-etxe ibiltzera! ARKAITZ eta LEIRE Trikitilariarekin (Zigaurre-Bordak). **14:00etan** haurren bazkaria Elkartetxean. **16:00etatik 19:00etara** puzgarriak eta kartsak. **20:00etan** dantzaldia FRANTZISKO akordeolariarekin. **22:00etan** andreen afaria frontoniam. **00:30etan** dantzaldia



JUANI MENDIBURUK UTZIAK

lazko bestetan, zikiro-jateko eta bazkalondoko giro ederra.

FRANTZISKO akordeolariarekin. **05:00etan** xingerrada.

Ortzilerie 12 Zikiro Egune

11:00etan mus zimizte txapelketaren finala. **14:30etan** zikiro jatea. Sagardo kupelarekin "Txotx" egiteko

aukera izanen da. **16:30etan** bertsolariak eta trikitilariak. **20:00etan** dantzaldia FRANTZISKOarekin. **22:00etan** zikiro afarie. **0:00etan** dantzaldia FRANTZISKOarekin. Ondotik Gizajua ni beste amaiera emateko.

 **MARGARITA AIZPURU**
Banaketak
Tel: 948 581 024 · Gurutz karrika, 2 · Zigaurre auzoa · ZIGA

MATUTANO Banatzailea
Fruitu lehorrak · Pipak
Txikleak · Aperitiboak
Goxokiak...
my pasta bestak!

 **Pablo Cenoz**
Pentsu banatzailea
Ongi pasa bestak!
Tel: 948 452 050 Soraburua · ZIGA

 **ETXEZURIA**
Landa etxea · Jone ridenda
my pasta bestak!
ANV NANTA Kalitateko pentsu banatzailea
elbaitari zerbitzuarerkin
Zera herriko denda, zera atetik harbil
egonera irekia
Tfnoa: 948 452 078
Tributale karrika · ZIGA

 **Esteban Menbiburu**
TRANSPORTES LIGEROS · GARRAIO ARINAK
Tel: 948 581 024 · Mug: 678 860 244
my pasta bestak!
Gurutz karrika, 2 · Zigaurre · ZIGA

ttipi
ttapa
☎ (0034) 948635458

BAZTAN

Baztango emakumearen egoeraren diagnosiaren aurkezpena egin da

Ikasketa aldetik prestatuak dauden arren, hori ez da lanean baliatzen

Angela eta Xamo

Uztailaren 20an egin zen Balleko Etxeko ganbaran «Baztango emakumeen egoeraren diagnosis»ren aurkezpena. Aipatutako ikerketa hau Soziologian doktorea den Ernesto Perezek zuzendu du eta Soziologian lizentziatu eta Gizarte Lanean diplomatu den Sara Soto Ahechuren partaidea izan du. Ikerketa egiterakoan, udalerrriaren alde demografiko zein sozioekonomikoak aztertu dira eta ezaugarri ezberdinak dauzkaten hamar emakume talderi elkarrizketak egin zaizkie.

Baztango emakumearen egoeraren diagnosis hurren landu nahi den Udaleko Berdintasun Planaren barnean aitzin urratsa bezala ulertu daiteke. Modu berean, Berdintasun Plan hau Baztan bailaran 2003. urtean onartu zen Plan Estrategikoan zehazten diren ekintza estrategikoei gehituko li-



ARGAZKIA. EDURNE ZUBIETA
Ernesto Perez ikerketaren zuzendaria eta Virginia Aleman alkatea, Baztango emakumearen egoeraren diagnosiaren aurkezpenean.

tzaiok. Emakumearen egoerari buruzko ikerketa honek Nafarroako Emakumearen Institutuko dirulaguntza jaso du.

Uztailaren 20ko aurkezpen ekitaldian Ernesto Perez ikerketaren zuzendaria, Virginia Aleman Baztango alkatea,

Helena Urtasun gizarte laguntzailea, Beatriz Alzuart garapen agentea, Jose Javier Bazterrika zinegotzia eta ikerketa egiteko elkarrizketatuak izan diren emakume horietako batzuk izan ziren.

Ikerketaren ondorio nagusiei dagokienez,

Baztango emakumeek ez dute orokorrean jarrerara sexistarik somatzen, batez ere gazteek etxeko lanen banaketan izaten zen desoreka hausten ari direla uste baitute. Halere, emakumeek bere kezka agertu dute, gizasemeekin aurrez aurre jarriz gero,

FLASH

Irurita-Elizondo saihesbideko lanak gibeleratu

Irurita eta Elizondoko saihesbideko lanak berri ere gibeleratu egingen dira. Afektatuei informazioa emateko epea urrian irekiko da, berez maiatzean egin behar bazen ere. 6 kilometro luze izanen dituen saihesbidea 2007rako irekitzea aurrikusia baldin badago ere, Nafarroako Gobernuko Herrilan Departamentuak atzerapenaren berri eman dio Balleko Udalari.

Juan Carlos Olaetxearen margolanen erakusketa

Juan Carlos Olaetxearen oleo margolanak ikusgai daude uztailaren 15etik abuztuaren 15era Elizondoko Jaime Urrutia karrikako 38an. Egunero zabalik dago erakusketa 11:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 21:00etara.

lanean berdintasunik ez dagoela uste dutelako. Uste hau, ikerketan egin den azterketa sozioekonomikoan baieztatuta da. Baztango emakumea arras prestatua dago ikasketa aldetik, baina bere jakituria hori ez da gero Baztango lan merkatuan baliatzen.

Okindegia *Jatetxea*

Uxoa

OKINDEGIAN
- Ogi artisauna, egunekoa eta txapitu
JAIETXEAN
- Menua eta karta (asteburuetan)
- Espezialitate parrilan erretako jakietan

Enlargatua gero, elkarri agian, orratz, (gora-gora)

Orduki Industrialek - Tlf: 948 45 34 03 - 31713 ARIZKUN

ANTXITONEA
Trinketea

Jatetxea - Ostalua
Hotela - Trinketea
Menu Berezak

948 581 807
948 581 853

Orduki Triarte karrika - ELIZONDO

ZUGARRAMURDI

Ospitala berritzeko lanak sei hilabetez finitu dituzte

Orain Sorginkeriaren Museoa egingen da

Margari eta Koro

Sei hilabete juxtuz egin dituzte Zugarramurdiko Ospitala berritzeko lanak. Urtearekin hasi ziren eta ekainaren ondarrean finitu zuten. Teilatua aldatu, lau paretak indartu eta barneko aldeko zolak eta tabikak eman dituzte. Horrez gain, ikusgela izan den tokian 70 jarlekuko gradak ere paratu dituzte.

Sorginkeriari buruzko Museoa ere jarri behar denez, orain lan hori egitea gelditzen da. Horretarako "Stoa, S.L." enpresa katalanari eman zaio lana, eta 96.831,42 euroko aurrekontuakin sei hilabetez finitua behar du izan.

Beraz, heldu den urtearen hasierarako, hainbertze urtez erori

hurrana ikusi dugun ospitalak arras bertze itxura izanen du.

Atxuriakoak Hiru Errege Mahaian

Arrakastatsua suertatu zen Atxuria mendi taldeak uztailaren 2rako antolatu zuen ibilaldia: denetara 16 lagun abiatu ziren Hiru Errege Mahaira. Batzuk bezperatik joanak ziren Linzako aterpera eta gainontzekoak goizeko 5etan atera ziren herri-tik. Zazpi oreneko ibilaldia egin zuten 2.400 metroko kaskora igan eta itzultzeko, eta nahiz eta bidea franko gogorra izan (elurra eta guzti pasatu behar izan zuten), jendea izigarri kontent itzuli zen toki eder-rrak ikusi omen zituzte-lakoz.



ARGAZKIAK: MARGARI

Goitian, Ospitalea, obrak finitu ondotik. Beheitan, Hiru Errege Mahaiko kas-koan ateratako argazkia.

Heldu den urterako ibilaldia ere antolatuta

utzi zuten: 2006ko uz- tailaren lehenbiziko la-

runbatean Orhi mendi- ra joanen dira.

URDAZUBI

Kultur Eguna egingen da abuztuaren 6an Axular eta Etxenikereren omenez

Axular eta Bruno Etxenikereren omenetan Egun Kulturala egingen da abuztuaren 6an. 12:30etan, Idauze-Mendiko kultura-oldarrak bultzaturik, ederlanzale gazteek osatzen duten Maksagar taldeak «Xi-beru@kom» ikuskizuna

aurkeztuko du, Xiberua gaitzat hartuz kantatua eta dantzatua. 13:15etan Roger Idiart apezak hitzaldia emanen du Eli-za eta gauazkoa gaiari buruz. 14:00etan ziki- roa izanen da Joxe An- gel musikariarekin eta Zuberoko abesleekin

alaiturik. Zikiroan parte hartu nahi duten urda- zubiarek sarrerako txar- tela abuztuaren 6a bai- no lehen eskuratzea aholkatzen zaie, txarte- lak murriztuak izanen baitira. Txartelak India- noabaita ostatuan iza- nen dira.



UTZITAKO ARGAZKIA

Gan den urtean bezala, hainbat pertsonai espero dira aurtien ere Egun Kulturalan.

SEMPERE

Hatsa elkarteak olerki zikloa abiatuko du uztailaren 30ean

Edu Zelaietak solas eta kantu emanaldia eskainiko du

ttipi-ttapa

Edu Zelaieta poeta gasteiztarrak hasiko du *Maite ditugun olerkariak* izeneko olerki zikloa Hatsa elkarteak larunbat huntan, uztailaren 30ean. Hortik aitzina, hilabete oro muntatuko da hitzordua. Beti hilabete azken larunbatean izanen da hitzordua, eta beti olerkari desberdin batekin.

Aldi honetan, goizean Sarako Olain mendian oinezko ibilaldia egin eta Zugarramurdi-ko Anttonen Bordan bazkaldu ondotik, 16:00etatik aitzinera Oxtikenean Bernardo Goietxe beratarra gitarran duela, Edu Zelaietak «Mugalde poetikaz, solasean eta kantuan»

saioa eskainiko du. Edu Zelaieta 1973an jaio zen Gasteizen eta Euskal Filologian lizentziatua da. Literaturari dagokionez, Udako Euskal Unibertsitateko Literatura Saileko buru da eta literaturaren inguruko jardunaldiak antolatzen ditu.

Urtean behin agertzen dituen olerki eta testuei jarraipen bat egin nahi du Hatsa elkarteak. Olerkia «humanoa-goa» bilakaraziz, Auxtin Zamora elkarteko arduradunak dioenez. Irakurketa soila baino «hitz bizia» anitzez adierazgarriagoa dela uste du Zamorak. Eta zergatik ez, bertan sortu trukatari esker, proiektu berriari abiarazi nahi lituzke.



ARGAZKIA. STUDIO DE LA NIVELLE

Uztaila hastapenean, herriko pilotariak saritu dituzte Herriko besten lehen egunean ere sariak banatu zituen andere auzapezak Senpereko kirolarien artean. Motoziklismoan, kanoan, eskubaloinean, errugbian edo pilotan ari diren senpertar hoberenek irabazi dituzte sari hauek. Etienne Bereau eskubaloineko ekiparen entrenatzaileak sari berezi bat ukan zuen talderai eman dion laguntza haundiarengatik. Pilotako zenbait txapel-dun ere ohoratu dituzte, hauen artean, Magali Comet 2004ko munduko kopan zilarrezko domina ukan zuen gomazko paleta jokalaria, Olivier Haroçarene, txapelketa berean zilarrezko domina jaso zuen esku huska jokalaria. Bixente Olaizola eta Damien Aguerre 2004ko Frantziako esku huska txapel-dunak.

Landibar EGUNERO IREKIA
ZENTRO KOMERTZIALA

VENTA PELO RESTAURANT

300m pertume markarik ezagunenekin, usain onak, kosmetikoak...

Euskal Herriko preziorik hoberenak

Tel: (0034) 948 599 400 - URDAZUBI

ELIZONDON EREKI DUGU!

abartan

CERRAMIENTOS • ITXITURAK

PVC eta ALUMINIOA

- ateak • leihoak • kontraleihoak
- manparak
- zeramikak (fabrikako prezioetan)
- kontsumo gubuko kalefakzio elektrikoak

Santiago 56, bajo • 31700 ELIZONDO
Tel. 948 561 152 • 667 264 025 • 696 970 725
maxena@terra.es

EZKONTZAK

Joël Robert Michel Deffieux eta **Béatrice Lemaire**, Senperekoak, ekainaren 4an.
Sylvain Jean-Pierre Thomas eta **Valérie Janine Marcelle Faivre**, Senperekoak, ekainaren 11n.

Benoît-Marie Gratien Camino eta **Béatrice Comet**, Senperekoak, ekainaren 18an.

Andoni Biurrarena Telletxea eta **Ana Maria Mendez Dupont**, Montreal (Kanada) eta Bogota (Kolonbia), Beran, uztailaren 8an.

Manu Endara eta **Sabine Tapia**, Sarakoak.

Raphael Delpuch eta **Nima Adan Doukseyeh**, Sarakoak.

Ronan John Clifford eta **Rosalía Castro Bidegain**, Irlanda eta Iruñekoa, Arizkun, uztailaren 9an.

Francisco Apezetxea Sobrino eta **Elena Gonzalez Obregozo**, Elizondokoak, ekainaren 4an.

David Alegre Lagos eta **Ana Belen Huarte Ugarte**, Iruña eta Elizondokoa, uztailaren 2an.

German Dario Mendoza Yepes eta **Ainhoa Petrikorena Gamio**, Kolonbia eta Iruñekoa, uztailaren 2an Elizondon.

Juan Miguel Altzugarai Galarregi eta **Meri Chichishvili**, Elizondo eta Georgiakoa, uztailaren 16an.

Francisco Jose Garcia Anton eta **Sara Ariztimuño Zabaleta**, Leitzakoak, uztailaren 2an.

SORTZEAK

Idoia Errekart, Senperekoa, maiatzaren 31n.

Jone Luberriaga, Senperekoa, ekainaren 7an.

Mathilde Camille Juliette Schömborg, Senperekoa, ekainaren 2an.

Dorian Bixente Irazabal, Senperekoa, ekainaren 11n.

Dorian Daniel Michel Poupée, Senperekoa, ekainaren 13an.

Sarah Amorena, Senperekoa, ekainaren 21ean.

Leyana Harocarene, Senperekoa, ekainaren 27an.

Carla Iliana Andrade Triviño, Lesakakoa, uztailaren 10ean.

Naiara Rodriguez Lanz, Lesakakoa, uztailaren 10ean.

Sara Goñi Otamendi, Berakoa, uztailaren 7an.

Adrian Fuente Dominguez, Berroetakoa, ekainaren 22an.

Asier Fuente Dominguez, Berroetakoa, ekainaren 22an.

Izan Elizetxe Reyes, Lekarozkoa, uztailaren 2an.

Xabier Bengotxea Agerre, Erratzukoa, uztailaren 6an.

Maria Pilar Arroabarren Gomez, Berroetakoa, uztailaren 9an.

Lur Muratori Unanua, Elizondokoa, uztailaren 11n.

Izaro Goienetxe Karrika, Amaiurkoa, uztailaren 12an.

Iñaki Lazaro Garmendia, Elizondokoa, uztailaren 15ean.

Oihan maritorea Etxeberria, Leitzakoa, uztailaren 1ean.

Unax Merino Iparragirre, Leitzakoa, uztailaren 13an.

Narrea Arrizurieta Telletxea, Leitzakoa, uztailaren 12an.



HERIOTZAK

Pierre Jean René Bénard, Senperekoa, ekainaren 24an.

Jacques Pierre Julien Chevret, Senperekoa, uztailaren 5ean.

Txema Aldabe Telletxea, Doneztebekoa, uztailaren 12an, 46 urte.

Camille Maury, Sarakoa.

Juan Bautista Etxekonanea Otxandorena, Beintza-Labaiengo, uztailaren 20an, 81 urte.

Micaela Agerrebere Larralde, Arizkongo, uztailaren 10ean, 85 urte.

Luis Lurnagarai Iriarte, Azpilkuetakoa, uztailaren 4an, 80 urte.

Candida Urtsuegi Zelaieta, Elizondokoa, uztailaren 4an, 73 urte.

Juan Francisco Subizar Sarratea, Legasakoa, uztailaren 5ean, 71 urte.

Javiera Lanz Etxepeteleku, Lesakakoa, uztailaren 12an, 89 urte.

Jose Etxarte Elizondo, Lesakakoa, uztailaren 17an, 74 urte.

Jose Maria Salaburu Arrijuria, Irurita, uztailaren 17an, 61 urte.

Joaquin Goikoetxea Telletxea, Ezkura, uztailaren 18an, 67 urte.

Estefania Belarra Baztarrika, Eratsungo, uztailaren 19an, 75 urte.



Txema ALDABE TELLETXEA

*Herioak zaitu golpa
Nahizta gogor egin aurka,
Min gogorraren aurrean
Goxua eta ausarta,
Bizitzan emana zara
Zer ikasia aparta,
Bizitzari aterea
Grazia eta txinparta,
Seme ona anai fina
Lagunen lagun xarmanta,
Zurekin egotea izan da
Gozamena bai galanta,
Bihotzean edukiko
Zaitugu sekula santa,
Gero arte senar maite
Zuretzat muxuak aita.*

ZURE FAMILIA ETA LAGUNAK

Gure saminarekin bat egin duzuen guztioi, mila esker.
Donezteben, 2005eko uztailaren 12an.

Txema
ALDABE TELLETXEA

2005eko uztailaren 12an

*Sobera abudo joan bazinen ere,
beti gogoan eta bihotzean
izanen zaitugu.*

**MALERREKAKO MANKOMUNITATEA
EUSKARA BATZORDEA.**

Txema
ALDABE TELLETXEA

Txema ...

*Barne gozo goxo;
Irri luze dizdira;
Izan izana izena;
Ginelako gara dira;
Berexi xiti lagun ...
Erran bezala gero arte eta ez apuutu...
Besarkada bat hire joatearekin
sufritzen duen bakoitzarentzat.*

MIKEL ETA BIKI
Donezto 2005eko uztailaren 12an

PILOTA

Txarutako pilotariek emaitza onak eskuratu dituzte uda hasieran

Baztango Txikiak txapelkun izan dira Belateko Herriarteko txapelketan

A.A.

Txaruta pilota elkarreko pilotariek emaitza politak lortu dituzte parte hartu duten hainbat txapelketetan. Honela, Tolosaldeko Hitz txapelketan, Iturengo Ugaitz Elizalde eta Arkaitz Untxalo txapelkun izan dira ume mailan.

Altsasuko txapelketan, Irurita eta Oronoz-Mugairiko Joseba Apeztegia eta Joseba Arizmendi txapelkun izan dira kimu mailan.

Tafallako txapelketan, Patxi Barberena iruritarra txapelkun izan da kadete mailan buruz buru eta Xabier Elizalde iturendarra eta Unai Arraztoa elizondarra txapelkun izan dira nagusien mailan.

Barañaingo txapelketan, Ugaitz Elizalde eta Arkaitz Untxalo iturendarrak txapelkunak izan dira ume mailan. Xabier Elizalde iturendarra txapelkun izan zen nagusien mailan buruz buru. Joseba Apeztegia eta Joseba Arizmendi (Irurita-Oronoz) txapelkunordeak izan dira kimu mailan eta Garikoitz Juanenea eta Xabier Madariaga (Saldias-Urrotz) txapelkunordeak kadete mailan.

Hauetaz aparte, Baztango txikiak (ume, kimu eta haurrak) txapelkun gelditu dira Belatek antolatutako Euskal Herriko Herriarteko txapelketan eta txapelkunordeak Euskal Herriko



ARTXIBOKOA

Goitian, Belateko Herriarteko txapelkunak: Zalba-Trantxe, Apeztegia-Arizmendi eta Gamio-Jauregi. Behegian, Untxalo eta Elizalde iturendarrak, barañaingo tyxapela jantzita, Telletxea eta Begino igantziarren kontrako finalean..

Pilota Konfederazioak antolatutako Euskal Herriko Herriarteko txapelketan, Markinaren

aurka. Aipatutako bi txapelketa hauetan Txarutako bi pilotari (Donamariako Igor Arregi eta

Iturengo Xabier Elizalde) txapelkunak suertatu dira Arantzarekin jokatuta.

HERRI KIROLA

Hainbat txapelketa erabaki ziren sanferminetan

Iruñeko sanferminetan burutu ziren herri kirol erakustaldietan, Nafarroako hainbat txapelketa ere erabaki dira. Nafarroako harrijasotze txapelketan Iñaki Perurena leizarra izan zen txapelkun, Patxi Larretxea arraioztarra bigarren eta Beintza-Labaiengo Josetxo Urrutia hirugarren. Lasto altxatze txapelketan Xabi Sein igantziarra nagusitu zen, Iñaki Bereau, Oskar Telletxea eta Iban Txoperena herritarren aitzinetik. Nafarroako hirugarren mailako aizkolari txapelketan Xabier Ariztegi etxalartarra nagusitu zen. Txinga txapelketan, Patxi Larretxea arraioztarra nagusi izan zen. 13 eta 15 urte arteko Nafarroako Aizkolari Gazteen Saria Garikoitz Larretxea arraioztarrantzat izan zen. Oihan Larretxea beratarra hirugarren izan zen eta Beintza-Labaiengo Alejandro Mindegia bosgarren. Nafarroako ingude altxatze txapelketa Beintza-Labaiengo Josetxo Urrutiarentzat izan zen, 89 altxaldirekin. Altxaldi kopuru bera egin zuen Igantzioko Xabi Seinek, baina Urrutia lehendabiziko aritu zenez, beretzat izan zen txapela. San Fermin Motzerra txapelketan Oierregiko Esteban Arruti izan zen garaile eta Arizkungo Martin Agerrea hirugarren.

AGENDA

egunez
egun

BESTAK

BEINTZA-LABAIEN

Abuztuaren 5etik 9ra herriko bestak. Xehetasunak 16. orrian.

BERA

Abuztuaren 2tik 6ra San Esteban bestak. Xehetasunak erdiko gehigarrian.

GAZTELU

Abuztuaren 3tik 7ra Santo Domingo bestak. Xehetasunak 13. orrian.

LEITZA

Abuztuaren 10etik 15era San Tiburtzio. Xehetasunak erdiko gehigarrian.

SUNBILLA

Abuztuaren 10etik 14ra San Tiburtzio bestak. Xehetasunak 14. orrian.

ZIGA

Abuztuaren 9tik 12ra San Lorentzo bestak. Xehetasunak 20. orrian.

MENDI ATERALDIAK

SUNBILLA

Uztailaren 31n Sunbilla-Goizueta ibilaldia egingen du Ulibeltzak kirol taldeak.
Abuztuaren 6an Hiru Errege Mahaira ateraldia egingen du Ulibeltzak kirol taldeak.
Abuztuaren 28an Sunbilla-Artikutza ibilaldia egingen du Ulibeltzak kirol taldeak.

TXOTXONGILOAK

ETXALAR


Uztailaren 29an Bihar taldearen txotxongilo ikuskizuna Kultur Etxean 20:00etan.

KULTUR EGUNA

URDAZUBI

Abuztuaren 6an Axular eta Bruno Etxenikeren omenez. Xehetasunak 21. orrian.

TELEBISTAKO TXOKOA



«BIDAIAK» SAIOA TTIPI-TTAPA TELEBISTAN

Etxetik mugitu gabe Munduan barrena bidaiatu

Aitzinekoak galdu badituzue, heldu direnak ez dituzue galdu behar. Uda honetan, Bestaz Besta saioa ematen ez delarik, astearte edo asteazken guziz Ttipi-ttapa Telebistak «Bidaiak» programa eskainiko du, Xan Harriaguek lankideak gidaturik. Izenak erraten duen bezala, munduko herri ezberdinetako informazioak emanen dira eta aldi guziz bertan izandako eskualdeko lagun baten partekatazea proposatzen dizuegu. Orain arte Marokko, Ameriketako Estatu Batuetako eta Kaukasori buruzko programak eman dira. hemendik aitzin Australia bisitatze-ko parada ukanen dugu eta Pan-

txo Bidegainek, Senperen bizi den Heletarrak, bere oroitzapenak azalduko dizkigu. Abuztuan, berriz, Argentinara joanen gara Iñigo Olaetxea lesakarrarekin. Gero, Xanti Gonzalez hondarribiarrak kontatuko digu nola 16 urtez munduko itzulia egin zuen emaztea eta semeekin, berak egindako belauntzi batean. Azkenik, lasaitzeko eta eguzkian egonaldi baten egiteko Kroaziara joanen gara baztango bi neskekin, Idoia Gillenea eta Oianko Garderekin. Nolaz ez, Berako San Esteban bestek programazioaren tarte zabal hartuko dute heldu den astean Ttipi-ttapa Telebistan.

DISKAK



«Encore»

GONZALO TEJADA

ELKAR, 2005

Gonzalo Tejada kontrabaxu jolea, Euskal Herriko musikari zein konposatzaile argienetakoa dugu. Jazz laukote eta boskote ugari zuzendu ditu, itzal handiko bertze musikari aunitzekin kolaboratu du eta jazz banda hala nola orkestra klasikoentzat ere lan aunitz idatzi ditu. Disko askotan parte hartu duen arren, honako «Encore» hau, bere seigarrena dugu. «Encore» lan sakon eta maitetsua dugu, xehetasunez bete eta talento handiz zizelkatua. Maila altuko jazz musika eskaintzen du eta, era berean, eskurakoa da, bereziki komunikatibo eta hurbila. Ondorioz, zazpi tema luze hauetan, kontrabaxuaren espresibitate sendoa oinarri delarik, erritmoen zirrarak eta armonien gozamenen artean eroso sentitzen gara, lagun on baten ondoan bezala.

BASERRIA

DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA (Uztailaren 8tik 15era bitarteko prezioak)

ZERRIKIA



Zerrikumea
(19 kilo): 29,00 € (=)

Zerri gizona
1,165 € kilo. (-0,075)

Zerramak:
0,480 € Kg/bizirik. (-0,20)

BEHIKIA



Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal
Extra 3,39 (=)
1.koa 3,16 (=)
2.koa 3,03 (=)
Urruxak: €/kg. Kanal
Extra 3,49 (=)
1.koa 3,28 (=)
2.koa 3,10 (=)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.
Aretze tikiak
(15 egun ingurukoak):
Aretze mestizoak:
urruxak 228,00 (-3,00)
idixkoak 260,00 (=)

Aretze nabarrak:
urruxak 180,00 (=)
idixkoak 205,00 (=)
Zaldikoak: €/k
Sortuberriak: 2,95/3,01
Zaldi-behorrak: 1,67/1,87
Bildotsak: €/k
6-8 kilokoak: 6,35 / 6,55
8-10 kilokoak: 4,95 / 5,45

AGENDA


egunez egun

JAKIN BEHARREKOAK

Emozioak trebetasunez hezitzeko jarraibideak

Nola sentitzen den adierazten lagundu behar zaio haurrari

Beraien seme-ala-bentzat zer nahi du-ten galdetuz gero, gu-rasoen erantzunik ohi-koenak «*zoriontsuak izan daitezela*» edo «*ez dezatela deusean faltarik izan*» dira. Baina materiala ez da guztia, hagitz garrantzitsua da beraien emozioak manejatzen erakustea, honela per-sona libre eta ardu-ratsuak izaten ikas de-zaten.



ARTXIBOKOA

Bere emozioak bideratzen lagundu behar zaio haurrari, jokuen, pa-sioen eta gisako jardueren bidez.

ZER EGIN:

- Haurraren portaera-ri arreta jarri, norma-letik kanpo dauden jo-kabideak atzemateko, adibidez, lo ongi ez egitea edo oso ixilik egotea...
- Nola sentitzen den adierazten lagundu. Laguntzen ahal diozu adibideak jarritz: «*Ni kontent nago, eta zu?*». Bere sentimen-duak lehen pertsonan

adierazten erakutsi, hau da, «*urduri nago*» eta ez «*urduri jarri nau-zu*».

- Bere sentimendua adierazteko modua ez bada egokiena, hori adierazteko bertze moduren baterakutsi. Adibidez, «*normala da urduri egotea, baina horregatik ez duzu lu-rrean ostikorik jo be-har*».

- Bere emozioak bi-deratzen lagundu, jo-

kuen, pasioen eta gi-sako jardueren bidez.

ZER EZ EGIN:

- Ez zaie arazoei ga-rrantzirik kendu behar, «*ez da horrenbertze-rako*» edo «*hori ton-takeria da*» bezalako esaldiekin, beretzat garrantzitsua izaten ahal baita.

- Oihuak edo meha-txuak ez erabili, hau-rrak portaera jakin bat izan ez dezan.

- Emozioak ez debe-katu. Blokeo emozio-nal baten arrazoia izan daiteke.

- Ez erabili «*mutikoen ez dute negarrik egi-ten*» bezalako esal-diak, komentario hauek sexistak baitira eta haurra blokea-tu edo gutxiago dela sentitzera iristen ahal baita.

Rakel AMIGO
Bortzirietako Giz. Zerb.

LIBURUAK



Bizi behar dugu

Xanti ZAPIRAIN «Kaiku»

TXALAPARTA, 2005

Hamar urte kalera atera gabe igaro zituen gizon baten aho-tsa da hau, katu bilakaturik iluntasunean, orrialde zuri ba-ten aurrean paratuta, argi ahul baten pean. Hori da liburu hon-nen abiapuntua. Isiltasun eta erabateko bakartasunean bi-zi behar duen pertsona baten idazteko beharra, idatzi, orain-dik bizirik dagoela ohartzeko. Lehenengo pertsonan konta-tua den arren, kolektibo oso baten bizipenak ekartzen ditu Zapi-rainek, Iparraldean erre-

fuxiatutakoena, GALen gara-rik makurrenetatik hasi eta gaur egunera arte.

«Oso ondo gogoratzen naiz igande hartan bete-betea nen-goela, eta arratsaldeko 17:00etan gutxi gorabehera Brigitte etorri zela. Garbi iku-si zuen zein zen nire egoera, eta hala ere ez zuen hitz bat ere esan, ez orduan eta ez hu-rrengo egunetan ere. Pastel bat eman zidan, eta hura ja-ten ari nintzen bitartean tele-bista piztu zuen».

ERAKUSKETAK

ARIZKUN

Uztailaren 2tik urriaren 2ra Xabier Soubelet margolariaren lanak ikusgai izanen dira Sasternea etxean.

DONEZTEBE

Ekainaren 30etik uztailaren 28ra Clara Santamaria margolariaren oleoak ikusgai Turismo Bulegoko erakusketa gelan. 12:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.

ELIZONDO

Uztailaren 22tik abuztuaren 31ra Mariano Sinués-en margo erakusketa Arizkunenea Kultur Etxean, goiz-arratsaldez. Cultur programazioaren barnean. **Uztailaren 22tik iraila bitarte** Ana Mari Marin margolariaren lanak ikusgai izanen dira Bergarenean. Goizez 11:30etatik 13:30etara eta arratsaldez 18:00etatik 21:00etara. **Uztailaren 21etik iraila bitarte** Tomas Sobrino Habans margolariaren «Naturari begiradak» erakusketa zabalik Arizkunenean.

BERTIZ

Uztailaren 22tik abuztuaren 31ra Luis Garridoen margo erakusketa Jaurerriko jauregian, goiz-arratsaldez. Cultur programazioaren barnean.

ETXALAR

Uztailaren 8tik 24ra Eli Mendiaren margo erakusketa Kultur Etxean. Asteartez 10:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 20:30etara. Asteburuak 12:00etatik 14:00etara eta 18:30etatik 20:30etara.

OSPAKIZUNAK

ARANTZA

Uztailaren 30ean Ekaitza elkartearen 25. urteurrenko besta

MENDAUR MOTOR

☎ 948 450333 • DONEZTEBE

Bigarren eskuko kotxeak:

Mitsubishi DID 3-5 ate, Vitara 3-5 ate TD, Vitara HDI, Opel Zafira, Opel Astra, Terrano II, Opel Combo, Galloper 5 ate eta Xsara HDI. SUZUKIAK ETA VITARAK AUKERAN

Hautzaindegi publikoak.

Bete behar da: haur zaindariak, hezitzaileak. Lan egutegia: astelehenetik ortzira. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

Sukalde laguntzaileak, kamareroak. Lanpostu finkoak. Ordutegia: Betatik 15etara. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

Elbarri fisikoak. Lanpostu libreak: atezain, harreragile, lorezainak erakunde publikoetan. ☎ 948 199596.

Osasunbidea, Udaletxeak. Derrioz, Fitero, Burlata, Berriplano, Iruña. Administrazio laguntzaileak behar dira. Abudo sartzeko. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

Laborategia. Teknikariak, laguntzaileak, zeladoreak, klinika laguntzaileak. Ospitaletarako lanpostu libreak. Informazioa doan. ☎ 948 199596.

MOTORRA
501 Salerosketak

Yamaha Fazer 600 motoa salgai. Plato, pinoi eta kate berriak. Gurpil berriak eta

SAMPI ARAGON
ZOANSA

Seat Ibiza D, Seat Ibiza 1.4 TDI, Seat Ibiza 1.9 SDI, Seat Leon TDI, Seat Toledo TDI, Opel Corsa DI, Opel Corsa Gasolina, BMW 320D, Peugeot Partner D, Peugeot 405D, Suzuki Vitara HDI, Suzuki Vitara Gasolina, Peugeot 206D, Peugeot 205D

☎ 948450334 - 948625555 • DONEZTEBE - BERA

motoaren maleta opari. Hobe ikustea! ☎ 687 736973.

Opel Corsa 1.7 DI autoa salgai, 90 zaldikoa, 2001ekoa. Egoera onean, garantia abendura arte. ☎ 948631054 edo 647 588844.

Gas-gas 250 Editron trialeko motoa salgai, 2003koa, matrikulatua. ☎ 647 588844.

BMW 323 TI Compac autoa salgai, 3 atekoa. 170 cv. Gasolina. ☎ 635 696688

Opel Tigra 1.6 autoa salgai, 16 balbulakoa, egoera onean eta prezio onean. ☎ 666 841383.

BMW M3 autoa salgai, full equip., egoera onean. 10.818 euro (1.800.000 pezeta). ☎ 696 794345.

Derbi FDS motoa salgai. Egoera onean. 300 euro. ☎ 619960122 (20:00etatik aurrera).

Renault Traffic furgonetak salgai. ☎ 690 848529.

Audi A4 autoa salgai, 1900 TDI, 110 zaldikoa. ☎ 605 717957.

Renault Clio 1.9D salgai, 90 cv. Egoera onean, hobe ikustea. ☎ 667 046452.

TALLERES SANTESTEBAN

☎ 948 450282 • DONEZTEBE

KOTXE IA BERRIEN SALMENTA
(6-10 HILABETEKOAK)

CLIO, MODUS, KANGOO, MEGANE, LAGUNA, LAGUNA GRAND TOUR, ESPACE, SEDAN, MEGANE GRAND TOUR

ANIMALIAK
602 Salerosketak

Monturako behorra salgai, baita hiru behoka ere, urte betekoak. Mantsok dira. ☎ 639 050188.

DENETARIK
701 Galdu-aurkituak

Donezteben arrantzako txalekoa galdu dut, lizentzia eta materialarekin ☎ 660 166941.

DENETARIK
702 Salerosketak

Hiru ahotseko trikitixa salgai. Ikasle batena, oso gutti erabilia. Urte bat eta ongi zaindua. ☎ 667 675463.

Polen freskoa eta bikaina salgai Goizuetan. ☎ 948 514055.

Komedoreko armaria eta mahaia salgai, antigualekoak. Mahai 6 lagunentzat etxia eta 10 lagunentzat erekia. ☎ 948 450321.

DENETARIK
703 Bertzelakoak

Karreterako bizikleta men-

**BERAko UDALA**
AYUNTAMIENTO DE BERA**BERDEGUNEAK ETA LORATEGIAK**
MANTENTZEA ETA ZUHAITZAK KIMATZEKO
LANAK EGITEKO LEHIAKETA

BERAko Udalak, berdeguneak eta lorategiak mantentzea eta zuhaitzak kimatzeko lanak egiteko kontratatzeko lehiaketa irekirako dei egiten du.

Kontratuaren xedea: berdeguneak eta lorategiak mantentzea eta zuhaitzak kimatzeko lanak egiteko kontratua.

Esleipen modua: prozedura irekia, lehiaketaren bidez.

Kontrata aurrekontua: 43.000,- euro (BEZa barne)

Proposamenak aurkeztea: Iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eman eta ondoko 27. egun naturala arte.

Proposamen ekonomikoak jendaurrean irekitzea: proposamenak aurkezteko epea bukatu eta 5. laneguneko 13:00etan.

Proiektua, baldintza tekniko eta klausula administratibo plegua eta gainerako baldintzak interesatuen eskura udal bulegoetan eta 012 Infolocal Zerbitzuan (Nafarroatik 012, eta Nafarroatik kanpo 948.217.012 telefonoetara deituz) izanen dira.

Bera, 2005.06.23

ALKATEA,

Helena Santesteban Guelbenzu

**BERAko UDALA**
AYUNTAMIENTO DE BERA**KANPOSANTUA MANTENTZEA ETA KALEAK**
GARBITZEKO UDAL ZERBITZUAK KONTRATATZEKO
LEHIAKETA

BERAko Udalak, kanposantua mantentzea eta kaleak garbitzeko Udal zerbitzuak egiteko kontratatzeko lehiaketa irekirako dei egiten du.

Kontratuaren xedea: kanposantua mantentzea eta kaleak garbitzeko Udal zerbitzuak egiteko kontratua.

Esleipen modua: prozedura irekia, lehiaketaren bidez.

Kontrata aurrekontua: 48.000,- euro (BEZa barne)

Proposamenak aurkeztea: Iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eman eta ondoko 27. egun naturala arte.

Proposamen ekonomikoak jendaurrean irekitzea: proposamenak aurkezteko epea bukatu eta 5. laneguneko 13:00etan.

Proiektua, baldintza tekniko eta klausula administratibo plegua eta gainerako baldintzak interesatuen eskura udal bulegoetan eta 012 Infolocal Zerbitzuan (Nafarroatik 012, eta Nafarroatik kanpo 948.217.012 telefonoetara deituz) izanen dira.

Bera, 2005.06.22

ALKATEA / La ALCALDESA

Helena Santesteban Guelbenzu

dikoarengatik aldatu edo salduko nuke. Taila 54, Shi-

mano 105. 44 zenbakiko bota berriak. ☎ 637 873969.

TXANPA
SERIGRAFIA

Estanpazioak

kuadrantzat
enpresentzat
koloretan

☎ 656784344

Josepe etxea
Doneztebe sarreran
txanpadoneztebe@yahoo.es

Maderas GOMEN

Zaldubia industrialdea
Tel: 948 580 645 - IRURITA

- Era guzietako atreak, janbak eta reguesoak
- Egur idorrek: tropikalak, haritzak, gaztainak, pinuak izeiak...
- Tarimak eta zolak: haritza, gaztaina, pinua...
- Tableroak: melaminak, hidrofugoak, matxinbratuak...



JULEN eta **OIER MITXELENAK** uztaillaren 10ean eta abuztuaren 10ean, urtea eta 5 urte beteko dituzte. Zorionak eta muxu handi bana attatto eta amatxoren partetik.



Elizondoko **AIMAR TELLETXEAK** abuztuaren 25ean 6 urte beteko ditu. Zorionak Xabier eta Enekoren partetik



IRENE PETRIRENA beratarak 24 urte bete ditu uztaillaren 12an. Zorionak moñonia atarren partetik eta ongi pasa. Muxuak.



GARAZI MIGELTORENA MITXELENA lesakarrak 3 urte bete ditu uztaillaren 23an. Zorionak atta eta amaren partetik. Segi alaitasun berarekin. Muxu bat.



OIER MITXELENA AROZENA beratarak abuztuaren 10ean 5 urte beteko ditu. Bortz muxu haundi Lesakako amatxiren partetik.



MATHEUSEK 13 urte bete ditu uztaillaren 23an. Zorionak aita eta Xebitaren partetik.



ANE BERASAIN GOIA beratarak 8 urte bete ditu uztaillaren 25ean. Zorionak Kattalin, amaxi, amofia eta famili guztiairen partetik. Muxu bat.



MADDIK 11 urte bete ditu uztaillaren 15ean. **ANEK** 8 urte bete ditu uztaillaren 25ean. Zorionak bieri Kattalinen partetik.



Zorionak **AIMAR** eta bere aitak **ANGELERI**. Aimarrek abuztuaren 3an urte bat beteko du eta aitak uztaillaren 12an bete zituen urteak. Muxu asko familia guztiairen partetik eta berexiki amatxoren partetik.




Zubietako **AIMAR IRIBARREN** **JUANIKORENAK** abuztuaren 3an urte bat beteko du. Zorionak atautxi-amautxi, osaba-izeba eta lehengusuen partetik. Muxuk.



ITSASO GONI beratarak uztaillaren 25ean beteko du «heldutasun» adina. Urte askotarako arkitekta! Ez galdu alaitasuna kanpeona! Muxu haundi bat.



Sanjullurreko **PILI URROZ** eri zorionak uztaillaren 18an bete ditu urteak. Zorionak lagunak, ama, alaba eta senideen partez. Gonbitu kubatara.



Berako **CRISTINAK** urteak bete ditu uztaillaren 23an eta horregatik bere argazkirik onena erakutsi nahi dizugu. Noizko hurrengo kontzertua? Zorionak!



3 urte pasa dira jaio zinenetik zorionak etxeko guztion partetik. Uztaillaren 20an urtebetetzea **EKHINE** nahi genuke ongi ospatzea.



GARAZI MIGELTORENA MITXELENA lesakarrak 3 urte bete ditu uztaillaren 23an. Hiru muxu haundi Lesakako amatxiren partetik.



EÑAUT IPARRAGIRRE ZINKUNEGI etxalartarrak 12 urte beteko ditu uztaillaren 27an. Hamabi muxu handi atta, ama eta berexiki Aimarren partetik.



JULEN eta **NAHIA ITURRIA GARCIA** beratarrek urtea beteko dute uztaillaren 29an. Zorionak eta muxu haundi bat familiaren partetik.



BEÑAT eta **XABIER MIGELTORENA MARITXALARREK** 6 urte eta urte bat bete dituzte uztaillaren 20an eta 17an. Zorionak familia guztiairen partetik, berexiki Julenen partetik.




AINHOA GONI beratarak urteak beteko ditu uztaillaren 29an. Aunitz urtez Etxalarko Joanes, Nahia eta Rabia zure «haurren» partetik.



AINHOA MARTÍN RODRÍGUEZ beratarak 2 urte eginen ditu uztaillaren 26an. Muxu haundi bat amaxi Pili eta familiaren partetik.



XABIER LARRETXE ALTZUGARAI lesakarrak 5 urte beteko ditu uztaillaren 29an. Zorionak familia guztiairen partetik.



JULEN OTXOTEOKO ARLEGI lesakarrak 5 urte bete ditu uztaillaren 24an. Uztaillaren 24an urtebetetzea denok desio dugu ongi ospatzea.



GARIKOITZ TXOPERENA **SALDIAS** igantzarrak 3 urte bete ditu uztaillaren 4an. Zorionak aita, ama eta familiaren partetik. Muxuak. Lasai ibili.



Lesakako **NAROAK** urte bat bete du uztaillaren 25ean. Zorionak familia guztiairen partetik, berexiki aitaxi Justo eta Marxele partetik. Muxu haundi bat.



Etxalarko **OIER** eta **MARKEL ITURRIAK** uztaillaren 23an eta abuztuaren 22an 10 eta 6 urte beteko dituzte. Zorionak Uxue, ama eta atarren partetik.



Etxalarko **OIER** eta **MARKEL ITURRIAK** uztaillaren 23an eta abuztuaren 22an 10 eta 6 urte beteko dituzte. Zorionak atautxi-amautxiren partetik.



Grupo Tanatorio Taldea
IRACHE
Maldaerrea S.L.
Funeraria Baztan

24 ORDUKO ZERBITZUA
BEILATOKIAN ETA ETXEAN

TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA
IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKEKAK,
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

Bera 948 63 74 04
SAN JOSE BEILATOKIA

Doneztebe 948 63 74 04
SAN PEDRO BEILATOKIA

Elizondo 948 58 19 59
FUNERARIA BAZTAN
TANATORIO BAZTANDARRA

Leitza 948 63 74 04
LEITZAKO BEILATOKIA

Lesaka 948 63 74 04
LESAKAKO TANATORIOA

Bestetako
DVD eta Bideoak
salgai

bestar besta 2005

DEITU
ETA ESKATU
ZUREA!!!



948 635 458

